

Levon eta Astghik neska-mutil armeniarrek

URTEBETE EUSKAL HERRIAN

Levon (15 urte) eta Astghik (14 urte) anai-arrebak dira; armeniarrek, Armeniako Errepublika Demokratikokoak. Orain dela urtebete etorri ziren Donostiara bizitzera beren gurasoekin. Levon futbolzalea eta futbolaria da; Ashtrich, piano-jotzailea. Euskal Herrira bizitzera etorrita, hemen bideratu nahi izan zituzten Armeniatik zekartzaten beren zaletasun eta trebetasunak: Levon Vasconia futbol-taldean sartu zen, eta Astghik Donostiako Musika-kontserbatorioan matrikulatu zen.

Levon eta Astghik-en gurasoek argi eta garbi zeukaten, Euskal Herrian bizitzen jarrita, bertan bertakotu behar zutela, eta aurren-aurrenik seme-alabek behintzat euskara ikasi behar zutela, gaztelaniarekin batera; horretarako D ereduko eskolan sartu nahi izan zituzten. Eta Donostiako Manteoko eskola publikoan matrikulatu zituzten.

Urtebete besterik ez dute eman Euskal Herrian, eta elkarrizketa hau osorik euskaraz egin ahal izan dugu. Beraiek kontatuko digute nolako izan den beren urte honetako esperientzia.

H2000E. Levon eta Astghik, zein hizkuntzatan egin zenituzten zeuon ikasketak Armenian?

Levon-Astghik. Eskola armenieraz egin genuen; eta errusiera ere ikasi genuen bertan.

Armeniako Errepublika Demokratikoa 1991an sortu zen, Levon eta Astghik haur txikiak zirela; horiek ia ez zuten ezagutu Sobiet Batasuna. Levonek gaineratzen du, eskolan ikasitako errusiera ahazten ari zaiola, urtebete igaro ondoren.

H2000E. Nola moldatu zineten hasiera hartan D ereduko Manteo eskolan?

Astghik. Gu eskolan hasi ginenean, ikastaroa oso aurrera zihoan. Guk ez genuen iaz eskolako programa jarraitu. Aurrenik, apirila arte, Abegi euskaltegian ibili ginen, egunero bost ordu, euskara ikasten. Apirilean sartu ginen Manteo eskolan, astean bi egunetan eta bi ordu bakarrik arratsalde. Tutore berezi bat jarri ziguten, euskara eta beste gai batzuk ikasteko.

Hezkuntza sailak eta HABEk moldatu zuten bi gazte armeniarrentzat programa berezia, plan pilototzat hartuz. Abegik irakasle berezi bat gehiago jarri zuen. Bi gazteak oso pozik daude Abegi euskaltegiarekin; laguntza oso ona izan omen zuten, eta beraiekin ondo portatu zirela agertu digute.



Astghik eta Levon

H2000E. Nola hartu zaituzte eskolako lagunek? Erraza izan da eskolako programa jarraitzea?

Astghik-Levon: Eskolako lagunek normal hartu gaituzte. Gu bezala, Mexikoko bat eta Floridako bat daude gure eskolan. Floridakoa beltza da. Hasieran ez zen erraza izan. Baina orain pozik gaude.

Aurreko eskola-urtea galdu egin behar izan zuten; orain laugarren mailan ari dira. Argitzen digutenez, Armeniako eskola eta hemengoa ezberdinak dira.

Levon eta Astghik-ek etxean armenieraz egiten dute gurasoekin; eta Donostian bizi diren beste armeniar lagunekin ere bai. Aitortu digutenez, euskara ikasteko oso baliagarria izan omen dute euskal telebista. Armenierazko eta euskarazko zenbait hitzen arteko hurbiltasuna ere aurkitua dute, nahiz eta alfabeto ezberdinez idatzita eman: katu (armenieraz ere "katu"), ur (armenieraz "txur"), gari (armenieraz "gari").

Erdaretan ingelesa ikasten dute Astghik eta Levonek eskolan —Armenian ere ingeleseko eskola-orduak izan zituzten—; eta gainera gaztelaniaz ere egiten dute dagoeneko, nahikoa ondo. Horri buruz galdetu nahi izan diegu biei, eta biek erantzun digute bata bestearen hitzak osatuz.

H2000E Eta gaztelaniaz egiteko, non eta nola ikasi duzue?

Levon-Astghik. Eskolan gaztelania ere ematen digute. Eta eskolako lagunek gaztelaniaz egiten dute asko, eskolan bertan, nahiz eta irakasleek euskaraz egin; eta gero kanpoan batez ere gaztelaniaz egiten dute asko, nahiz eta irakasleek euskaraz egiteko esan.

Gaztelania ikasteko zailtasunik ez dute izan, esan digutenez. Eskolatik kanpo dituzten Donostiako lagunaren artean ere gehienbat gaztelaniaz egiten omen dute. Astghik-en lagunetan mutil batak beti euskaraz egiten omen du; baina besteek gehienetan gaztelania erabiltzen omen dute. Levon-en Vasconia-ko bere futbol taldean denek dakite euskaraz; baina gaztelaniaz egiten omen dute, jokatzen ari direnean.

Levon-en futbol-zaletasunaren eta ezagutzaren berri Armenian bertan jakin genuen, duela urte pare bat han ezagutu genuenean. Euskal Herriko lehen mailako lau futbol taldeak ezezik, horietako futbolari askoren izenak ere ezagunak zirenean orduan, 13 urteko mutikoak.

H2000E. Zer moduz moldatzen zara, Levon, Vasconia taldean, futboleant?

Levon: Ondo. Hasieratik ondo. Lagunekin ondo konpontzen naiz.

Orain "kadeteak-2" mailan dago bera; datoren urtean jubenetara igotzeko itxaropena du. Eta lau urte barru Real Sociedad-en jokatzea. Baina bere amets handia Manchester-en jokatzea du. Ingelesa ez omen zaio gustatzen —frantsesa maiteagoa omen du—; baina Manchester futbol-taldea, asko.

Astghik-ek bestelako zaletasuna du nagusi: pianoa eta musika. Egia esan, txundituta utzi gintuen 12 urteko neskatilak Armeniako bere etxean erakutsi zigun pianoa jotzeko trebetasunak. Eta Donostian, eskolarekin batera Kontserbatorioan ematen ditu eguneko bere ordu gehienak.

H2000E. Pozik ari zara, Astghik, Kontserbatorioan? Zer ikasten duzu?

Astghik. Oso pozik nago. Pianoa, solfeoa eta kantua ikasten ditut. Kontserbatorioko koruan kantatzen dut gainera.

Maila ertaineko lehen graduan ari da pianoa ikasten. Sei urte edo ditu emanak, eta beste sei urte eman beharko omen ditu, piano-ikasketak burutzeko. Ikasleen ametsa kontzerturen bat ematea da. Astghik-ek aurten bertan Kontserbatorioan kontzertua emateko aukera emango dioten itxaropenik badu. Eta piano-jotzaileaz gain zer izan nahiko lukeen galdetu diogunean, kantaria izan nahiko lukeela aitortu digu. Bestalde, eskola-programari dagokionez, batxilergo musikala egiteko asmoa du.

Urtebete doi-doi daramate Levonek eta Astghik-ek Euskal Herrian. Eta zalantzarik gabe, bertakotzeko bidea azkar egin dute, eskolak, futbolarik eta musika-ikasketek lagunduta —Gasteizko Hezkuntza-sailak ere arreta berezia ipini izan du, bi armeniar gazteen esperientzia piloto hau ondo atera zedin—. Baina bestelako integrazio-bideei ere erreparatu die neska-mutilek: Etxean Armeniako janari-moduekin batera Euskal Herrikoak ere sartzen omen ditu amak —Astghik-ek *paella* omen du oso gustokoa—. Beraiek nahiago lukete eskolako jantokian bazkaldu, baina oraingoan extera joaten omen dira bazkaltzera.

Zinea ikustera joaten ote diren galdetzean, oraingo ezetz erantzun dute; baina eskolan ikusi omen du bat edo beste: "El pianista", adibidez. Ondo gogoan geratu zaio, jakina, Astghik-i titulu hori.

Paulo AGIRREBALTZATEGIren
elkarrizketa